



ELKARRIZKETA: **JASONE MENDIZABAL**, AED-KO IDAZKARI OHIA

Arrasate

P R E S S

2000.eko
otsailak 4
482. zenb.

Urkulu bizi-bizi



IKUSPEGIA: **KARMELE PEREZ** • ORAIN ETA HEMEN: **BEASAIN-DURANGO AURRERA**
KIROLOAK: **UARKAPEKO JAIALDIAK** • KULTURA ELKARRIZKETA: **MANOLO QUEVEDO**




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik

Etorkizunaren promesa

Galdu egin dut, azkenean, modernitatearen eta kontsumismoaren aginduen aurka azken urteotan izan dudana borroka. Zer demontre egin ote dudana galdetuko didazue, behar bada. Erraza da, hara: nik ere ordenadore sartu dut etxean. Zenbat lan, hainbat kontaktu eta hamaika informazio erraztuko didalakoan edo.

Egia esan, ez nago oso harro. Benetan iruditzen zait beste partida bat galdu dudala, eta materialismoak beste bat irabazi didala/duela. Horretarako nire/gure etxeak begiratzea baino ez dago: biltegiak dirudite, gero eta gauza gehiago pilatzen dutenak. Nor geldituko da, bada, azken nobedaderik gabe? Zenbat eta gehiago dugun, gehiago balio dugu, antza. Bizi



Karmele Perez

garen eta dugun gizarteak sinestarazi digu zoriontasuna horretan oinarritzen dela: edukitzean, alegia. Hortaz, ez daukanak eduki egin nahi du, eta daukanak, gehiago nahi du. Eta zenbat eta gehiago dugun, eta zenbat eta dokumentu gehiago sinatzen dugun, hainbat eta dependetzia, lotura eta kontrol handiagoa gure bizitzan. Hori da, hori,

panorama!

Gure mundu modernoari begiratzen diogunean, jainko berriak ikusten ditugu, liderretatik, ospetik eta aberastasunetik sortu ditugunak. Idoloak sortu ditugu gaitasun intelektualetik abiatuta,

Mundu modernoan jainko berriak ditugu. Modernitatearen eskizofreniak irentsi gaitu.

edertasun fisikotik abiatuta, irrikatzen ditugun gauzetatik abiatuta. Modernitatearen eskizofreniak irentsi gaitu.

Sarritan entzun izan dut gaurko gazteek eta haurrek ez dakitela gauzak estimatzen, ez dakitela

gauza xumeekin gozatzen. Baina harrizkoa al da, ezagutu dutena ezagututa eta jaso dutena jasota? Izan ere, nork, ikusi eta ikasi duen arabera eskatzen baitu. Eta duela berrogeita hamar, hogeita hamar edo hamar urte ikusi eta ikasi duguna hain da ezberdina, ezen ez baita harrizkoa eskatzeko eta emateko duguna hain ezberdina izatea sarri. Are gehiago: hartzen hain lanpetuta gaudenez, ematea ahazten ari zaigu. Eta ez dakigu kalkulatzeko horrek gugan ze ondorio izango ote duen. Eta ez dugu ikusi nahi horrek munduarengan ze eragin izango duen.

Gauzak horrela, nolakoa ote da gure etorkizunaren promesa? Nolakoa, galtzen ari garen baloreen etorkizuna? Nik, behintzat, krisian ikusten ditut. Ez dugu jakin baliabide berriak guztion eta guztiaren onerako erabiltzen. Beste batzuei utzi diegu haien sinesmenak, haien ametsak, haien nahiak gure bihurtzen. Eraikitzaile eta erabakitzaile izan beharrean, erabiltzaile eta erabili bihurtu gara. Eta ez nago harro, beste promesa bat amesten baitut nik etorkizunerako. Gure esku dago, ezta? ■

“Erakusketa honek maitasunez eta grinaz egindako lanaren jendaurreko aurkezpena erakusten du. Zuen gustukoa izango dela espero dut”.

Manolo Quevedo

1.700

hegazi egoten omen dira Urkuluko urtegiaren neguan.

Kopetazuriak, Murgilari Arruntak eta Basahateak. Udan Murgilari Erregea, Txilinportat Txikia, Basahatea, Kopeta zuria eta Uroiloak egoten dira. Azken hauek bikoteka etortzen dira gure artera. Uda pasa bezain pronto toki beroen bila alde egiten dute.

ITURRI ONETIK

Hamar urte hamaika kontu

ATBren hamar urte hauetan hainbat bitxikeri gertatu dira. Hauetako batzuk gogora ekartzeagatik, behin zuzenean emititzen ari zen mahainguru batean argia joan eta ilunetan geratu zen platoa; behar bezala barkamena eskatu eta programa bertan behera geratu zen. Beste batean ospital zaharreko egoitzan, Frai Rufinori egiten ari ziren elkarriketara batean, plato erdian lagun berezi bat agertu zen: xagutxo jostalari bat.

San Juanetako zuzeneko programa batean, soinua behar bezala entzun zedin teknikari batek kableak ikutzen egon behar izan zuen saio osoan zehar. Parasikologia ote? Eta zuzenean barrez hasitako aurkezleak?...

Hamaika kontu bizi izan dira hamar urtetan.



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publikitateak:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arriobe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administratzailea:** Agurtzane Gainzarain, Maite Urriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90) **Diseminatzailea:** Maddi Trubuelo. **Aste-buruetako berriemakilerak:** Mónica Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udako Gaztania, Saitia, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal, Iker Ezpeleta. **Banaketaren arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frantzeko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuarekin egiten da.

Azala: Marrazkiak: Mikel Arriobe.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiararen laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 4**
 • Ruiz, Maalako Errabala.
- Larunbata, 5**
 • Morales, San Andres.
- Igandea, 6**
 • Azkoaga, Ferrerías.
- Astelehena, 7**
 • Azkoaga, Iturriotz.
- Asteartea, 8**
 • Korkuera, Musakola.
- Asteazkena, 9**
 • Irizar, Erguin.
- Osteguna, 10**
 • Amezua, Santa Marina.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguualatorria 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Arrasate
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 02
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA. 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

JOSU URIBETXEBARRIA ARRASATEAR PRESO POLITIKOAK GOSE GREBAN

Urtarrilaren 20an hasita Josu Uribetxebarría herritarra gose greba egiten ari da Valdemoroko kartzelan.

Pasa den urteko azaroaren 1ean hasita, Euskal Preso politikoak hogeinako txandetan gose greba mugagabea aurkitzen dira. Prozesuan parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen ari dira. Prozesua demokratikoa izan dadin, guztion parte hartzea beharrezkoa delako, eta are gehiago gatazka politiko honetan eragile zuzenak izan eta diren erre-presaliatu politikoen parte hartzea.

Amnistiaren Aldeko borroka oso borroka garrantzitsua bada ere, prozesuan beste urrats bat gehiago da.

Josuk 15 egun beteko ditu gaur gose greban. Prozesu demokratiko bat egitearen alde gaudenok, preso eta errefuxiatuen parte hartzearen alde gaudenok eta espainiar eta frantziar estatuei errepresioaren bidea ez dela bidea adierazi nahi dugunok, adi egon behar dugu Josu eta gainontzeko euskal preso politikoen borrokarekin bat egiteko mobilizazioetan parte hartzeko.

Arrasateko Amnistiaren
Aldeko Batzordea

Ez deritzot batere gaizki, garabiaren erabilera berri eta zehatzari, gaizki aparatirik aurkitzen diren autoak erditik kentzeko erabakia-ri.

Baina bestalde, hobe luke- te udaletzeko arduradunek alde batetik, neurri zehatz pare bat hitzarmenduz eta indarrean jarriz eta aldi berean, burujabetasun handiagoa erabiliz, saiaturiko balira irtenbide zuzen eta bidezko bat aurkitzen; hain zuzen ere, herriko erdigune inguruan astegunetan eta bereziki ordu seinatu- tuetan gertatzen den trafiko arazoa, eta era berean, arazo honek berarekin dakarren ondorio larria, hau da, gertatzen den auto aglomerazio handia.

Oraindik ere gaur egun trafiko arazoa herri honetan konpondu gabe ikusten dut eta gutun honen bidez nire kezka adierazi nahi dut; aldi berean, herritarren artean ere eragiten duen egonezinagatik.

Beraz ea behingoz denon artean, eta batez ere udale- txe- tik, arazo larri honi bidezko irtenbidea aurkitzeko ardu- ra duenarekin, borondate eta konpromiso handiagoa hartzen dugun, edo gai izaten garen arazoa konpontzeko.

Joseina Barrutiabengoa

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Eramaten duzu ezer bedeinkatzera San Blas egunean?

Urtarrilaren 3an izan da San Blas eguna



Calisto Sanchez
(47 urte)
Langilea

Ez dut ohiturarik ezer bedeinkatzeko, baina San Blas opila jaten dut.




Camila Leon
(47 urte)
Langilea

San Blas opiltxoia baino ez dut eramaten.



Josune Saez de Biteri
(30 urte)
Langilea

Orain ez dut ezer eramaten, lanean egoten naiz eta. Lehen fruta, lepoko lokarria eta San Blas opila eramaten nituen.



Jose Jabier Uribetxebarria
(51 urte)
Langilea

Ez dut ezer eramaten, ez dut ohiturarik. Amak bai. Hark eramaten ditu.



Agurtzane Ibabe
(41 urte)
Langilea

Bai, urtero joaten naiz gauzak bedeinkatzera: abereentzako artoa, gozokiak, San Blas opila, kafea, txokolatea... eramaten ditut.



Sarabia Garzia
(57 urte)
Langilea

Ez dut ezer eramaten, ez dut animaliarik eta.




Juan Mari Sanpedro
(52 urte)
Langilea

Ez dut ezer eramaten, ez dut sekula ohiturarik izan eta.



Goiatz Aginagalde
(21 urte)
Ikaslea

Txokolatea, gailetak eta etxean jaten diren gauzak eramaten ditugu bedeinkatzera.



**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZU ESPEZIALIZATUA**

- Asistentzia geriatrikoa
- Laguntza psikologikoa (Gaixo eta familiakoentzat)
- Erizain laguntzaileen zainketak

ISIDRO BUENO MARTINEZ

Olaeta Plaza, 2, 3.B
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 49 98
Mobila: 656 72 62 00



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Berritu zure itxura!

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

4

ostirala

■ ZINEA

Música del Corazón, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ GASTRONOMIA ETA ARTISAUTZA MINTZAGAI

Corazon de Encinak gonbidatuta Sierra de Gatako talde batek bertako gastronomia eta artisautzari buruz mintzatu da. Monterronen, 19:30.

5

larunbata

■ ZINEA

Deep Blue Sea, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ GARAGARTZA KANTUAN

Santa Ageda batzera irtengo dira bihar Garagartzako auzotarrak, tradizioari jarraituz. Aurreko urteotan ez bezala, aurten adin guztietako 30 bat auzokide irtengo dira etxerik etxe abesten. 16:00etan hasiko dira, Etxebarrin. Handik plazako etxeak bisitatuko dituzte, eta Zabalbide eta Beluneko puntara joko dute. Barruti Txiki eta Leze Txikirako bidean dauden etxeetako atak ere joko dituzte. Korriorako puntara iritsi ondoren, plaza zeharkatu eta Iturralden amaituko dute ibilbidea, 17:00etan.

■ OGI MAMIAK EGUNA

Corazon de Encinaren eskutik, Sierra de Gatako produktuek dastaketa, Laubiden, 10:30. Ogi mamiak jateko aukera ere egongo da. 18:00, bi elkarteen dantzaldia.

■ JAM ARETOA

Kontzertu hirukoitza izango da gaur gauean Bergarako Jamen. *Overkill*, *Annihilator* eta *Embrace Me Ocean* taldeek eratzten dute gaurko eskaintza. Sarrerak 2.500 pezeta kostako dira, 2.300 aldez aurretik erosita. 21:00etatik aurrera.

8

asteartea

■ ZINEA

Deep Blue Sea, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

6

igandea

■ ZINEA

Deep Blue Sea, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

7

astelehena

■ ZINEA

Deep Blue Sea, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

9

asteazkena

■ ARNALDO OTEGI MONTERRONEN

“Euskal Demokrazia Osaizkeko oinarriak eta garatze bideak” proposamenaren aurkezpena egingo du Euskal Herriarrokek, eta Arnaldo Otegi etorriko da. Monterron Jauregian, 19:00.

■ HITZALDIA

“Eskola porrotaren presentzioa” hitzaldia eskainiko dute Aretxabaletako Kurtzerri eskolako liburutegian, guraso eskolak antolatuta. Hizlaria: Ignacio Aporta de Paz, psikologo eta orientatzailea. 18:15.

Santa Ageda jaiak asteburuan

Gaur hasiko da Gesalibar auzoa Santa Agedaren omeneko jaiak ospatzen. Arratsaldeko 19:00etan etxaflero jaurtiketarekin eta Jentil Ola elkartearen egoitzan afari oparoarekin jarraituko dute. Lizaso eta Sorozabal bertsolariak eta Gardoki akordeoilariak girotuko dute afaflotea. Bihar goizean umeen txanda izango da, jai berezia antolatu baitu Txatxilipurdik auzoko plazan, 11:00etan. Eguerdian hildakoen aldeko meza izango da, eta 14:30etan Santa Ageda batzera joango da koroa, tradizioak agindu bezala. Gaueko 21:00etatik aurrera, korukoek afaria izango dute, eta gero erromerian dantza egiteko ordua iritsiko da. Domekan Meza Nagusia izango da Gesalibarko elizan.

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Sagardotegia Txotx egin!

ITURROETA

Arága auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

10 osteguna

■ ZINEA

Entre Gigantes, 21:30, Amaia antzokian.

■ BILERA ARRASATEKO DBH INSTITUTUAN

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (12-16 urte) Arrasateko Institutuak bilera informatiboak egingo ditu sei-garren mailan ari direnen gurasoei zuzenduta. Musakola herri eskolan, San Andres herri eskolan eta Erguin herri eskolan. Ordua: 17:30.

■ MANOLO QUEVEDO HARRESIN

Hilaren 4tik hasita eta 20arte, margo erakusketa eskainiko du Manolo Quevedok. Lanegunetako bisita ordutegia 18:00-20:00 izango da, eta larunbat eta jai egunetako, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00, Harresi aretoan.

■ ARRASATE LEHIAKETAK AMAITZEAR

Otsailaren 11 da XIII. Arrasate Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna. AED Elkarteak antolatzen ditu, Udalaren laguntzarekin eta ondoko ataletan har dezakezue parte: ipuina, poesia, bertso-paperak, komikia, Leintz eta Ugaran bailareta-ko euskararen egindako magnetofoi-grabazioak eta irrtati erreportajea.

■ ESKUBALOI IKASTAROA

Joan den asterako antolatu zen eskubaloi ikastaroa hilaren 7ra atzeratu da. Deba bailarako eskubaloi jokalaria eta entrenatzaileei dago zuzendua. Jose Julio

Barrenetxea da emalea, eta eskubaloi jolas aplikatuei buruz arituko da. Bergarako Labegaraieta kiroldegian, 19:00. Argibideak: 943 77 91 67.

■ SAGARDO EGUNA HERNANIN

Asteartean, hilaren 8an, amaituko da AEKren Sagardo Egunean parte hartzeko txartelak erosteko epea. Hernanin izango da festa, eta egitaraua pil-pilean dago. Azoka eta kale animazioa, 17:30etan, bakailao lehiaketa, trikitilariak eta bertsolariak egongo dira. 20:30etan, sagardotegian afaldu eta gauean musika, Ene Bada eta disc jockeyekin. Txartelak, Erdu AEKn, 4.000 pta.n. Argibideak: 943 77 03 69.

■ ELKARTASUN BEKAK

Boli Kostako umeentzat ikasketetarako bekak antolatu ditu Serso San Viatorrek, eta diru laguntza ematera gonbidatzen zaituzte. Boli Kostako Ferkessedougou hiriko viatorrek zuzentzen duten Charles Lwanga ikastetxeko haurrentzat

izango da laguntza. Argibideak: Tomas Aranberri, 943 71 24 90.

■ MENDIKO ESKI TRABESIA

Gavarniera (Frantziako Piriniora) mendi eski travesia antolatu du Besaidek, otsailaren 12an eta 13an. Izena ematea otsailaren 7-8, Besaideren egoitzan, 19:30-20:30. 1.000 pta.n.

■ IGERILEKUA ITXITA

Eusko Jaurlaritzaren araudiaren arabera egin behar diren lanak direla eta, igerilekua itxita egongo da otsailaren 7tik 13ra. Beste instalazio guztiak zabalik izango dira ohiko ordutegian.

■ GOELLOREN MARGO ERAKUSKETA

Peio Gonzalez Goellok "Esos Otros Paisajes" izenburua duen margo erakusketa eskainiko du San Andres auzoko Toki-Eder kafetegian, hilabete osoan. Duela 45 urte Hernanin jaioa dugu Goello. Bere kabuz ikasi zuen margotzen, eta Artelekun ibilitakoa da. Lehendabiziko aldia da Arrasaten erakusten duena.

Martxoaren 8ko IV. kartel lehiaketa "EMAKUME! HARTU HITZA ETA ERABAKIA"

Saria: 70.000 pta (-PFEZ)

Zure lana aurkezteko epea: otsailak 18

Oinarriak: Arrasateko Udaleko Emakume Sailean.



ARRASATEKO
UDALA

Emakume Saila ■

Berri gehiago 943 79 09 00 edo
943 79 41 39 telefonoetan.



ESKER ONA

2000.eko urtarrilaren 26an hil zen

Basilisa Larrañaga Lizarralde

Bere familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak eta hileta elizkizunetara etorri izana.

USTEAK USTE

Merezi ote du?

Josu Uribetxebarria preso arrasateararak urtarilaren 20an ekin zion gose grebari. Bizkairi txanda hartu zion, honek 44 egun gose greban egin ondoren eta gutxienez 21 kilo galdu eta gero. Beraz Josuk hamabost egun bete ditu dagoeneko gose greban, gaur ostirala, eta bost bat kilo galdu omen ditu dagoeneko.

Josuk, bere kideek bezala gose grebaren bidea aukeratu du euskal presoek eskubideen alde borrokatzeko.

Kalean gaudenok entzun entzuten ditugu honek edo hark gose greba laga behar izan duela osasun arazoengatik, edo honek haren txanda hartu duela gehiago ezin zuelako. Baina benetan jabetzen ote gara eurek jasaten ari diren egoeraz? Denok dakigu gose greba bat oso gauza serioa eta larria dela. Baina imajina ditzakegu bene-benetan espetxe bateko ziegan hotzak aidean eta ahultasunak erabat jota egoteak ekar ditzakeen ondorioak?

Pentsatu egin behar. Pentsatu eta baloratu.

Marijo Deogracias



Itxura onena izateko

* Maggi Esteban

Medikuntza eta kirurgia estetikoaren helburua ahalik eta itxura onena izaten laguntzea da.

Zentru honetan estetika-ko akatsak zuzentzen saiatzen gara. Ez dira berez gaixotasunak, gizarteak onartutako eredu batzuen aldean ezberdintasunak baizik, norbere irudiarekiko ondoeza sortarazten dutenak.

Arazo eta egoera bakoitzaren balorazioa egiten dugu, aukeran dauden tratamendu guztien definizio eta justifikazioak, eta aukeratutako tratamenduak eskaintako aukeren eta norbere itxaropenen arteko egokitzea.

Hona hemen zenbait adibide:

Liposukzioa: Gorputzeko silueta eta forman gertatzen diren pilaketak tratatzeko, edonon gertatzen direla ere: mokorretan, sabel aldean, izterretan, belaunetan...

Azalean egindako ebaki txikien bidez bizpahiru milimetroko kanulak ziztatzen dira, xurga-

gailu bati lotuta. Delikatua da, artisaularia, eta bolumenak eta formak hustu, erregularizatu eta harmonizatzea du helburu.

Esklerosi baskularra: barize txikientzat tratameturik egokiena da, dauden lekuan daudela.

Barizearen barruan esklerosatzaileraren izeneko likidoa injektatzen da. Sortutako erreakzio kontrolatuak barizea desagertarazten du.

Mesoterapia: Zelulitis zabalduaren eta zirkulazio arazoaren tratamendua, eragin egiaztatua duten hainbat sendagai azalean ziztatuz egiten da. Horrela, gorputzatal horietako zirkulazioa eta azalaren

oxigenazioa hobetzen dira. Gainera, zelula koipetsuek permeabilitate gehiago lortzen dute eta euren edukia aska dezakete.

Ezpainak berreraikitzea: Ezpainetako gune batzuk hainbat sustantziarekin betetzen dira. Kolagenoa, metakrilatoa, arte-colla edo profila erabiltzen dira horretarako. Era honetara, ezpain txikiak handitu, barnekaldera sartuta daudenak edertu edo perfilatu gabeko edo haragi gutxi-koak konpondu egin daitezke, eta gaztetasun eta edertasun itxura ematen zaie.

Toxina botulinikoa: keinueen ondorioz sortzen diren zimurren tratamendua da. Bekokian, betartean edo begien inguruan erazten dira, gehienbat, zimurrok. Muskulu jakin batzuetan toxina hau ziztatzen da eta muskuluen erlaxazioa lortzen da epe luzera.

Dietetika: Pertsona bakoitzaren bizimodua eta ohiturak kontuan hartuta, bakoitzarentzat dieta egokiena diseinatzen da. Gainera, nahi zen pisua lortu denean berriz lehenera itzultzea galeratzeko elikadura heziketa eskaintzen da.

Orbainak: Eskuragai dagoen azken tratamendua da. Hiru asteren buruan orbainak guztiz desagertuko direla ziurtatzen da honen bidez. Gainera, eguzkia lasai har daiteke berritoki, orbainak agertuko diren beldurrik gabe.

“ Estetikako akatsak ez dira gaixotasunak, ezberdintasunak baizik ”

*Lirain estetika zentrok sendagilea

Pando
ERROTULOAK
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabilioia)
Tel. / Faxe: 943 79 79 70

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82


OÑATI

1 Trafiko eragozpenak

Hainbat lan egiten ari dira Oñatiko errepideetan. Beraz, gune batzuetan trafikoa moztu egin da eta beste leku batzuetara desbideratu da. Aurreikusten ziren eragozpenak agertu dira, batez ere lantegietara sartu edo irteteko orduetan, izugarrizko auto ilarak sortzen baitira.

Hala ere, arazo handiagorik ez da sortu. Saihesbidea Portalekuarekin lotzeko eta biribilak egiteko lanen ondorioz, San Prudentziotik joanda Ibarako sarreraren eta Arantzazurako bidearen hasieraren arteko zatia itxi egin da bi norabideetan. Saihesbidea hartu ordez Oñatiko hirigunea zeharkatu beharko da. Gainera, San Prudentziotik Legazpirako norantza segitzen duten kamioiek Oñatira sartzeko debekua izango dute, eta Des-kargatik joan beharko dute. Oñatin karga banatu edo jaso behar duten kamioiak besterik ezin izango dira hirigunera sartu.

Aldaketa hauek otsailaren 14ra bitartean izango dira, gutxienez.



ESKORIATZA

2 Dokumentazio zentro berria

Aste honetan izan da Almen Ikastolak bere egoitzan ezarri duen Informazio eta Dokumentazio zentroaren inaugurazio ofiziala. Almeneko ikas-

leei dago zuzendua, eta ikasketak ohiturak eta taldeko lana indartzeko helburua ditu mediatekak. Eskolak egin duen egoitza berrian dago kokatua, eta egin diren lanen ondoren lehengo Zentroaren edukiera hirukoiztu egin da. Informazio eta Dokumentazio

zentroak eskaintza hirukoitza du. Alde batetik, jakingura piztu nahi du ikasleengan; bestalde, irakurketa eta ikasketarekin gozaten irakatsi nahi die gazteei; eta azkenik, bakarka ikasteko gune bat izango da. Teknologia ere bertan izango da, ikusentzuteko materiala, ordenadoreak eta Internet eskaintzen baititu egoitza honek.

BERGARA

3 Egitezko bikoteen errolda

Ezkongabeko bikoteen errolda sortzeko proposamena onartu du Bergarako Udal Biltzarrak, EAJ, EA eta EHk baieztatu botoa eman ondoren. Bergaran erroldatutako bikoteek izango dute bertan izena emateko aukera, sexu bereko zein ezberdineko pertsonak izan.

Gainera, euren harreman pertsonalei edo ondasunei dagozkien hitzarmen edo kontratuak aitortu ahal izango dituzte. Gizarte Zerbitzuetarako sailak adierazi duenez, neurri honen bidez ezkonduarik ez dauden bikoteen esku-bideak indartzen dira, eta esku-bide hauek frogatzeko eta erabiltzeko oinarri bihurtzen da.

SIKOL

G A R A I K O OIHALAK

2x1

Oihal mozketak bakoitzeko, beste bat opari.

Ez galdu aukera!

Olarte, 31 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 32

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ Seme-alabei laguntzeko

Gurasoen buruhausteetako bat seme-alabei ikasketetan nola lagundu izaten da, eta honi konponbidea emateko bi hitzaldi eman dira aste honetan Institutuan, Gurasoen Elkarteak antolatuta.

Hizlaria Javier Lopez psikologo eta pedagogo orientatzailea izan da eta gai nagusia, berriz, "Ikasketa ohiturak eta lan pertsonalaren ardura". Hitzaldiak gurasoei zuzendu zaizkie.

Besteak beste irakurketaren garrantzia azpimarratu zen hitzaldietan eta baita gurasoek euren seme-alaben heziketan bete beharreko paperaz ere.

■ Etxeko ardurak, biontzat

Asteartean hasi dira gizon eta emakumeen artean lanak trukatzeko ikastaroak. Emakume Sailak antolatuta, berdintasuna bultzatzea du helburu, etxeko edozein lan gizon nahiz emakumeek egitera ohitzea eta ezberdintasunerako aitzakiarik ez egotea, hain zuzen ere.

Horretarako astean birritan jardungo du elkartu den 13 laguneko taldeak, guztira 50 ordu egin arte; apirila inguruan bukatuko da ikastaroa. Tarte horretan, gizonetakoek plantxa eta antzekoak egiten ikasiko dute eta emakumezkoak, berriz, bri-

kolajea eta antzekoetan arituko dira.

■ San Felipe Apostolekoak, pozik

Halaxe azaldu ziren pasa den astelehenean egindako urteko batzar orokorrean. 1999. urteko balantzea egin zen eta emaitzen arabera, 398 kide gehiagok eman dute izena pasa berri den urtean. Bestetik, aurten 62 heriotzaz arduratu behar izan dute, 1998. urtean baino 25 gutxiagoz.

Honekin guztiarekin, balantze positiboa egin zuen Jesus Mari Arizmendiarrietak, San Felipe Apostol elkar-teko presidentek.



■ Greba orokorrak erantzun anitza

Era guztietako erantzuna jaso zuen pasa den ostegunerako EHK deitu zuen greba orokorrak. Merkataritzako zentroetan eta hainbat ikastetxetan erantzuna erabatekoa izan zen. Lantegi askotan, ordea, ordubeteko lanuzteak eta bilkurak egin zituzten egun osoko grebaren ordez. Halaxe egin zuten Garagartzako Fagorren, esaterako. Eguerdian 100 bat lagun kalean bildu ziren. Eroskik eta Kutxak, bestalde, goizeko lehen orduetan atek iriki bazituzten ere, nahiko laster berriro ere itxi egin zituzten. Tartean, noski, solidarioen eragina nabarmena izan zen. Goizeko lehen orduetatik kalean ibili ziren jendeari grebarako deia egiten.

Bestalde, bi kale agerraldi egin ziren eguneko zehar. Eguerdiko 12:00etan bata eta arratsaldeko 19:30etan bestea, zein baino zein jendetsuagoak biak. Grebarako deia egin zutenek positibotzat jo zuten, oro har, erantzuna.

“...geure euskalkiaren egoera ona da. Onenarikoa Euskal Herri osoan. Egoera soziala be ona da horretarako: oso gune industrializatu da, ikerkuntza oso altu dago, unibersidade bi dagoz, Mondragoien eta Eibarren, eta euskera kontuetan be, oso gune euskaltzalea da, hedabidietan eta euskera taldietan aitzindaria izan da Deba ibarra”.

KOLDO ZUAZO

(El Correo)

2000.1.31

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

Jaiotzak

- Mikel Abuin Bideburu. Urtarrilaren 8an.
- Mikel Velasco Delgado. Urtarrilaren 23an.
- Asier Etxebarria Mondragon. Urtarrilaren 25ean.

Hildakoak

- Pilar Díaz Beltza. Urtarrilaren 12an. 74 urte.
- Ignacio Etxebarria Arrese. Urtarrilaren 13an. 59 urte.
- Lorenzo Urrutia Arregi. Urtarrilaren 13an. 90 urte.
- Marcos Morón de Miguel. Urtarrilaren 15ean. 78 urte.
- Tomasa Pinilla Ciordia. Urtarrilaren 16an. 88 urte.
- Victoriano Ganboa Gorostiza. Urtarrilaren 18an. 68 urte.
- Angel Iglesias Rodríguez. Urtarrilaren 21ean. 94 urte.
- María Jesús Mato Frías. Urtarrilaren 20an. 72 urte.
- Basilisa Larrañaga Lizarralde. Urtarrilaren 26an. 81 urte.
- Sabina Madinabeitia Arbulu. Urtarrilaren 30ean. 79 urte.
- Luis Heriz Telleria. Urtarrilaren 30ean. 72 urte.
- María Concepción Rodas Castro. Otsailaren 2an. 90 urte.

Arrasateko Ezker Batua Lizarra-Garazin

Arrasateko Ezker Batuak Lizarra-Garazitik ez ateratzea erabaki du aste honetan egindako erreferendumean.

Arrasaten hartutako erabakia ez da Euskal Herriko beste inon gertatu. Esan behar dago, hala ere, Euskal Herriko Ezker Batuko militanteen %83k babestu duela Kontseilu Politikoaren erabakia. Baina, bozkatzeko eskubidea duten EBko kideen %36k bai-

no ez zuen bozkatu asteleheneko erreferendumean.

Arrasaten gertatutakoari buruz, Joseba Ugaldek azaldu bezala, pentsatzekoa zen hori gertatuko zela. Bere ustez, Ezker Batuaren asanbladak eta Kontseilu Politikoak dena dela, ez lukete Lizarra-Garazitik ateratzeko erabakia hartu beharko. Izan ere, elkarrizketa bultzatzeko beharrezkoa da, bere ustez, foro horretan egotea.



Hala ere, hemendik aurrera, Ugalderen ustez, Lizarra-Garazik beste norabide bat hartu beharko du, ETak beste ekintzaren bat burutuz gero.

Harrobia epaitegietara

Urteko lehenengo zenbakian kontatu bezala, urtarrilaren 3an San Josepe harrobian eztanda handi bat izan zen. Harrobiko harriek uste baino urrutiago ihes egin zuten, inguruan hainbat kalte eraginez.

12 salaketa jaso zituen Ertzaintzak egun horretan eta orain, atestatua edo argiketa aurkeztu du Bergarako epaitegian.

Arrasateko Udala tartean izango da epaiketari, izan ere, kaltetutako eraikinen artean Umezaintzakoa dago, Udalaren jabetzakoa. Fagor

Arrasate, Fagor Automation eta Omico enpresak ere kaltetu zituen eztanda eta baita Fagor Arrasateren aurrean apartakututa zeuden 22 automobilak ere. Beraz, handik ere salaketak bideratu ziren.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak ere espedientea ireki dio harrobiari.

Horrekin guztiarekin joan da Ertzaintza Bergarako epaitegira. Otsailaren 20an diligentiak eramango dira eta hortik aurrera, epaitegiaren gain geratuko da gainerako guztia.

Garaia proiektuari babesa

Debagoieneko Mankomunitateak babesa eman dio MCCren Garaia proiektuari. Honek esan nahi du Debagoieneko herri guztiak ados daudela MCCren baitan ikerketa-gune hau garatzearekin. Prentsaurrean adierazitakoaren arabera, egitasmoa gauzatzeko beharrezko diren azpiegitura fisiko, kultural eta sozialak eratzeko lan egiteko prest dago Mankomunitatea.



Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



Bost kilo gutxiago

Josu Uribeberria preso arrasatearrak dagoeneko bost kilo galdu ditu pasa den urtarrilaren 20an gose greba hasi zue- netik. Presoaren anaia Jabier Uribeberriaren esanetan, bost kilo galdu arren, animoso dago eta kartzelako medikuaren zaindartzapean. Josu Uribeberria Valdemoroko kartzelan dago momentu honetan. Hainbat epaiketa ditu zain eta horiek egin arte Madrilgo kartzela horretan segituko du.

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



Aldundian adostasuna Beasain-Durango errepidea egiteko

Gipuzkoako Foru Aldundian gure herrialderako aurrekontuak onartzeko hitzarmena lortu da aste honetan EAJ, EA eta EHren artean. Ondorioz, zenbait lanetan aurrera egitea adostu da dagoeneko. Lan hauen artean Arrasateko Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak egindako eskaera bat ere onartu da: Beasain-Durango errepidea egitea, hain zuzen ere. Halaxe jakinarazi digu Foru Aldundiko Errepide Sailak.

Beasain-Durango errepidearen barruan, Ormaiztegi- ren eta Zumarragaren arteko bide zatia egingo da aurrenik. Lanak egiten noiz hasiko diren zehaztu barik izan arren, 2000. urterako 1.400 milioi pezeta onartu dira bide zati hori egiteko. Era berean, 2001. eta 2002. urteetarako beste 3.000 milioi ematea onartu da.

Horretaz gain, errepide beraren zati moduan Deskar- gako tunela egitea ere onartu da. Tunel hori 2003. urterako dago aurreikusita eta dagoe-



Antton Jaimek egingo du Beasain-Durango errepidearen aurkezpena.

neko 3.000 milioi pezetako inbertsioa onartu du Foru Aldundiak.

Bestalde, errepide hori oso- rik egiteko eta berau finantzia- tzeko bideak aztertzen segitu- ko da Foru Aldundian. Gauza bera egingo dute Eibar-Gasteiz autopistarekin. Horretarako sei hilabeteko epea ezarri da.

OLANDIXOKO TUNELA

Gogora dezagun Arrasateko Udalak eta Mankomunitate- ak aldundiari zera eskatu zio- tela: Beasain-Durango errepide- a aurreratzea, Maltzaga-

Urbina bide zaharrean kon- ponketa lanak egitea, eta Arrasatek Aramaioraino- ko saihebidetara egitea. Orduan ez zen onartu eska- tutakoa. Orain, ordea, lehe- nengo bi eskaerak onartu dira. Hirugarrena lortzea fal- ta da eta baita behin eta berriz eskatu izan den Olandixoko tunela edo Arrasateko Men- debaldeko saihebidetara ere. Xabier Zubizarretak adiera- zi duenez pozik daude lortu- takoarekin, baina egindako eskaerak lortu arte behin eta berriz saiatuko dira.

Eskola Politeknikoa handitzekotan

Eskola Politeknikoak Iturri- peren atzeko aldean dauden 70 bat aparkalekuren lur zatia eskatu dio udalari, toki horre- tan beste eraikin bat egiteko. Udalak onartu egin du eska- era aste honetako Gobernu Batzordean.

Eskolatik jakinarazita- koaren arabera, eraikin berria egiteko asmoa izan arren, ezin da gauza gehiegirik aurreratu oraindik negozi- a- ketetan ari baitira.

Beraz, oraingoz ziurtatu dezakeguna da Iturri- pe atze- an dauden 70 aparkaleku

inguru desagertuko direla.

Hala ere, LKSk eginiko aurreproiektuaren arabera, Eskolaren eraikinarekin bate- ra aparkaleku berriak ere egi- teko asmoa dago. 40 bat lor- tuko lirateke eraikin berrian. Falta direnak, berriz, Iturri- peko kiroldegitik ateratzeko asmoa dago. Saskibaloia eta tenis pistak erabiliko dira horretarako. Asteburuak apro- betxatuz, jende gutxi izaten dela eta, kiroldegia eta Esko- lako eraikin berriaren artean dauden 2.500 m²ak aparkale- kutarako erabiliko lirateke.

Iberdrolari eskaera

Arrasateko Udalak herrian dau- den tentsio altuko pare bat zuti- ko behar bezala kokatzea eska- tu dio Iberdrola enpresari.

Bata, Uribarrin dagoen tentsio altuko postea edo subestazioa da eta bestea, Eskualdeko Ospitalaren aurre- an dagoen tentsio erdikoa da.

Horrez gain, A20 gunean edo Musakolan egin beharre- ko konponketetan inbertsioak egitea ere eskatu zaio Iber- drolari.



SAN BALEIXOETAN GAZTETXOAK NAGUSI

Meatzerreka auzoko San Baleixo jaietan txikienak izan ziren protagonista. Denetik egon zen haien

gozamenerako: ponietan ibilaldia, lehiaketa dibertigarriak eta orotariko jolasak.

IDAZLEAK ENTRENATZEN

“Idazleak Eskoletan” programaren barruan Yolanda Arrieta idazleak osteratxoan egin zuen Erguin Herri Eskolako gaztetxoekin egoteko. Idazleen sekretutxoak kontatu zizkien ikasleei eta begira zelako arretaz entzuten zioten!!! Hauek badakite geroko balio handia izango dutela Yolandaren esanek...



MURAL LEHIAKETAN FINALISTA

Joana Iglesias La Mercedeko ikaslea finalista geratu zen Eusko Jaurlaritzaren

“Giza Eskubideak eta Bakea” mural lehiaketan. La Merced ikastetxeari oho-

rezko aipamena eman zioten, aurkeztutako lanen kalitateagatik.

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



Milurte berriko

ikastola

aurreratu dugu.



GIPUZKOAKO URIBE ETXEBARRIATARREN BILA

Bizkaiko 80 Uribe Etxebarriatarrek bazkaria egin zuten iaz Arantzazun. Aurten, Gipuzkoako Uribe Etxebarriekin elkartu nahi dute, udaberri partean bazkariren bat egiteko. 944 62 07 31 telefonora dei egin dezakezue.



AL-ANDALUS, 10. URTEURRENA OSPATZEN

Santurtziko andaluziarrekin sardina jana izan zuten Al-Andalusekoek, urtarrilaren 22an larunbateaz, elkartearen 10. urteurrena ospatzeko. Joan den asteburuan, berriz, Lasarteko andaluziarrak gonbidatu zituzten eta musika emanaldia izan zuten.



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
Setatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABAETA

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Zergatik aukeratu duzu zure seme-alabarentzako eskola publikoa?



Agurtzane Barrutia

“Masifikaturik ez dagoelako eta konfiantza ematen didalako”.



Agurtzane Garai

“Behar ditugun zerbitzuak ematen dizkigulako: jangela, garraioa, orientazioa...”.



Josebe Landaluze

“Euskalduna delako eta Arrasateko eta Euskal Herriko ohiturak bultzatzen dituelako”.



Jose Jabier Zeziaga

“Erdialdean bizi naiz; hala ere, publikora eramaten dut garraioaz arazorik ez dudalako”.



Ana Segundo

“Eskola guztietan lan egiteko era antzekoa izanda, publikoan errekurtsioak dohainik eskaintzen dizkigutelako”.



Antxon Herrero

“Nik uste dut baloreak oso ondo lantzen direla: aniztasuna, berdintasuna, elkartasuna...”.



Andoni Alzelai

“Teknologia berriak eskaintzen dituelako eta beraien abantailetaz baliatzen delako”.



Garbiñe Santacruz

“Gerora begira: lan mundura, Unibertsitatera, maila akademiko ezin hobea ziurtatzen duelako”.



OTSAILAK 13

zorionak ATB!

10 *urte,*
ordutan



SAIO BEREZIA

12:00-22:00 zuzenean

Jabier Salaberri (URIBARRIKO ERRETIRATUEN ETXEO LEHENDAKARIA)

“Gizartean partehartze handiagoa izan behar dugu erretiratuok”

Javier Salaberri arrasatearra duela 67 urte jaio zen, eta herrian bizi izan da beti. San Jose Kooperatiban, gaurko Eroskin eta Fagorren egin du lan, besteak beste. Joan den maiatzetik Uribarriko erretiratuoen etxeko lehendakaria da.

— Duela bi urte erretiratuoen etxea gizarte etxe bihurtzeko asmoa izan zen. Zertan zarete gaur egun?

— Gure lokala erretiratuentzat bakarrik geratu da, zentzuzkoa zen moduan. Alde batetik, lokal hori txiki-gia da gizarte etxe izateko; 740 bazkide inguru gara eta guk ere leku arazoak izaten ditugu, atera kontuak. Bestalde, erretiratuok geure egoitza izan behar dugu, geure ekintzetarako. Oraingo joera gizarte etxeak egitea da, baina erretiratuok ez dute hori entzun ere egin nahi.

— Arazo hori konponduta, beste buruhausterik ematen dizu eguneroko lanak?

— Nik uste baino gehiago. Beti dago antolatzeko zerbait. Gainera, eskualdeko eta Gipuzkoako beste etxeekin, erakundeekin... harremanetan ibili beharra dago. Baina nik esaten dut zuzendaritza lanak ez digula behar baino denbora gehiago hartu behar. Nik bizpahiru ordu ematen ditut han, astean bi aldiz, jendeari entzuteko, eta kitto.



2001.eko maiatza arte izango da Jabier Salaberri Uribarriko etxeko lehendakari.

— Zein helburu duzu lehendakari moduan?

— Erretiratuok gizarte bizitzan partehartze handiagoa izan dezaten nahi dut, hau da, lokalean elkartu eta arratsaldea kartetan pasatzen duten erretiratuoen irudia baztertu. Hori epe luze-rako helburua da, jakina, baina horren atzetik nabil, eta ekintza berriak sartu ditut. Adibidez, Iturbidekoei bisitaldiak egiteko konpromiso serioa lortu nahi dut, orain borondatezko kontua da eta. Bestalde, ostera ibilaldiak egiten hasi nahi dut, Arrasateko txokoetara, eta Euskal Herri osora.

— Gestioaren aldetik, zerbait berri duzu?

— Bai, finantziarioa. Erakundearen dirulaguntzak jasotzen ditugu, baina orain laguntza sistema aldatu egin da eta Foru Aldundiak ekintza bakoitzaren arabera ematen du dirua, eta gauza batzuetarako ez du ezer ematen; adibidez, merienda edo bazkarietarako, eskasia garaiak pasata direla esaten duelako. Erretiratu etxeen etorkizuna autofinantziarioa dela uste dut. Eta hori lortzeko, lehen doan ziren ekintza batzuk orain ordaina jarri dut. Ez da guztion gustuko neurria, baina beharrezkoa da.

— Erretiratuoen etxeak garrantzitsuak direla esan duzu. Hala ere, sumatu duzu ezberdintasunik etxe haue-tan jendearen ohituretan?

— Bai. Erretiratuoen etxe-ek topagune garrantzitsuak izaten jarraitzen dute, eta honetan ez da aldaketarik izan. Baina lehen gizonezkoak ziren ohitura gehien zutenak, eta orain, ordea, emakumeen presentzia izugarri igo da. Lehen etxean egiten zutena, orain nagusien etxean egin dezakete, eta aukera berriak eskaintzen dizkiegu: gimnasia, tailerrak, etabar. Uribarriko etxean behintzat hala gertatzen da.

“Nagusien etxeen etorkizuna autofinantziarioa da”

Urkulu hegaztien babesk

Urkulu urtegiira joanez gero, hango paraje ederra da ikusten dugun lehenengo gauza. Denbora apur bat emanez gero, baina, urtegiaren dagoen bizitza oparoaz jabetzen gara berehala. Ehiza Babeslekua izanik, 76 hegazti mota biltzen dira urtegiak duen kilometro karratu

eskasean. Hegazti asko hain toki txikirako. Gipuzkoan ahate gehien biltzen den tokia da Urkulu. Baina bestelako hegaztiak ere ugariak dira.

Horixe da Urkuluren aberastasuna. Ingu-ruan, Txingudi du pareko.

no da. Berarekin ere berbetan izan gara erreportaje hau egin ahal izateko.

ZERGATIK URKULU?

Urkuluk ez du berezkoa hainbesteko hegaztiren zatitase-dengune edo bizitoki izatea. Urtegia egin eta ondorengo da Urkuluren izaera hau, 1979. urtetik aurrerakoa, hain zuzen ere. Ubarroi taldekoen esant-tan, "ura bera da hegaztien-zatitase erakargarria. Hegaztien egiten duten ibilbidean atse-den hartzeko leku ezinhobe-a da urtegia. Uretako hegaz-tientzat, batez ere. Lehen, Urkulu ez zegoenean, Araba-ko Uribarriraino joaten ziren". Mikel Olano basozainaren iri-tziz, "10 urte ingurutik hona Ehiza Babeslekua ere bada Urkulu (ezin da ehizarik egin) eta horrek zuzenean eragiten du hegaztiengan. Jendeak pakean uzten ditu eta ohitu egi-ten dira eta apurka-apurka ugaltzen doaz".



Ubarroi natur taldeko bi kideak hegaztiak aztertzen.

Hor, hainbeste hegazti eta bizidunen artean Mikel eta Oskar biologoak isilean aritzen dira, txoriak adi-adi zaindu eta aztertzen, ahalik eta gehien ikasteko asmoz. Arrasatekoa da Oskar Mayor; Mikel Arroiabe, berriz, Aretxabaletakoa. Ikasketek eta antzeko zaletasunek lotuta, lau urte daroate Urkulura joan eta hango hegaztiak ezagutzen.

Bi lagun hauek, gainera, Ubarroi izeneko natur taldea eratu zuten pare bat urte dela eta laster, orain arte Urkulun ikusitakoaren emaitza erakutsiko dute: Urkulun bizi edo Urkulutik pasatzen diren

hegaztien marrazkien bidez erakusketa egiteko asmoa dute.

Bi horien laguntzaz gain, hala ere, basozainen zaintza

ere badute Urkuluko hegaztien. Foru Aldundiko bi lagunek jarduten dute lan horretan. Horietako bat Mikel Ola-

Dauden hegazti mota guztien artean kopururik handienekoak hauek dira:

NEGUAN

Kopetazuria:	800 inguru.
Murgilari Arrunta:	400 inguru.
Basahatea:	500 inguru.

UDAN

Murgilari Erregea edo Handia:	3-4 bikote.
Txilinporta Txikia:	5 bat bikote.
Basahatea:	20 bat bikote.
Kopetazuria:	40 bat bikote.
Uroiloa:	10 bat bikote.

URETAKO HEGAZTIAK

Hauetxek dira Urkulun nagusi. Uretako hegaztien artean, 5 bat espezie urte osoan Urkulun bizi dira. Hau da, negua han emateaz gain, kumeak ere Urkulun egiten dituzte eta, beraz, uda ere bertan egiten dute. Hauetxek dira: Murgil Erregea edo Handia, Txilinporta Txikia, Basahatea, Kopetazuria eta Uroiloa. Hauen artean, Aretxabaletako urtegiaren, Kopetazuria da gehien ugaldu dena.

Hegazti bitxi moduan, berriz, Murgil Erregea aipa genezake. Honek uretan egiten du habia eta kumeak jaio ondoren, bizkar gainean eramaten ditu.

ku bihurtu da

KOPETAZURIA



- Urte ona izanez gero, birritan egiten ditu umeak: apirila aldean eta uztaila aldean. 3, 4 edo 5 kume egin ditzake.
- Zuhaisken ipurdian egiten dute habia.
- Urpekaria da.
- Ur azpiko belarrak jaten ditu, gehienbat.

MURGIL ERREGEA EDO HANDIA



- Babestutako espeziea. Tamaina nahiko handia.
- Urte ona izanez gero, birritan egiten ditu umeak: apirila-maiatza inguruan eta abuztuan.
- Araldi garaian oso dantza bitxiak egiten ditu.
- Kabia uretan egiten du eta kumeak jaio ondoren, bizkargainean eramaten ditu.
- Urpekaria da. Ur azpiko larbak, zomorroak eta arrainak jaten ditu.

TXILINPORTA TXIKIA



- Babestutako espeziea.
- Oso txikia.
- Urte ona izanez gero, bi kumealdi izaten ditu: apirila-maiatzean eta abuztuan.
- Oso bitxia da, oso aktiboa. Zarata berezia egiten du, garrasi antzekoa.
- Kabia ur ertzeko landare artean egiten du. Arrautzen gainean dagoela zarataren bat entzunez gero, aguro-aguro arraultzak tapatu eta uretara salto egiten du.
- Urpekaria. Ur azpiko larbak eta zomorroak jaten ditu.

NEGUTARRAK

Aipatutako hegaztiez gain, baina, badaude neguan soilik etortzen direnak ere. Mikel Olano basozainak argitu digunez, "Europatik etortzen dira, iparraldetik. Hegazti mordoska bizi da han, baina han negua gogorra izaten denez, toki goxoagoetara etortzen dira janari bila. Ondoren, udaberrira heltzean, kumatzeko garaia izaten denez, berriro ere sorlekura itzultzen dira hegaztiak. Negua pasatzeko aukeratzuten duten tokietako bat Urkulu da eta bertara etortzen diren hegaztiak batzuk ondorengoak dira: Ubarroi Handia, Lertxun Hauskara, Murgilaria, Ahate Mokoza-bala, Zerzeta, Ahate Txistularia, Antzarra, Murgilari Mottoduna, Hegabera, Kulixka txikia, Kurrioloa, Ipar Ahatea, Ahate Buztanluzea eta Ahate Gorritzeta.

BAKARTIAK

Aipatutako hegazti hauetaz gain, badaude bakarka etorri ohi direnak ere. Basozainaren esanetan, Amiamoko Zuria (Zikoina), esaterako, ikusi izan da Urkulun.

Zisne beltz edo Beltxargaren misterioak ere argibide erraza du. Uda aldean agertzen hegazti arraro hau nonbaitetik ihes egindakoa da, besterik barik. Berez etxeko



Mikel Olano basozaina.

hegaztia izanik, nolabait basati bihurtu da.

ETORKIZUNA

Urkuluren etorkizuna oparua izango dela dirudi, inguru behar den moduan zaintzen badugu. Gipuzkoako Foru Aldundian ere badago zerbait egiteko ideiarene bat edo beste. Gipuzkoan ahateak ikusteko tokirik onena dela jakinda, ornitologi parkea ezartzeko aukera aztertzen ari dira. Parke horretan hainbat behatoki ezarriko litzateke, teleskopio eta guzti, eta horrela, ahateak ikusteko primerako aukera izango luke jendeak.

Bien bitartean, Mikel eta Oskar biologoek euren denbora librean hegaztiak zaintzen jarraituko dute eta Foru Aldundiko bi basozainak ere urte osoan ibiliko dira lan horretan. ■

Ubane Madera.

Ornitologi parkea egiteko asmoa dauka Foru Aldundiak

Hegaztien marrazkiak Mikel Arroiabe atxabaltarrak egini-koak dira.

"Umeak gustatu egin behar zaizkizu"



Horixe diote Leire Ezpeletak eta Ihintz Bengoak. Haurrekin lan egitea "gustatu egin behar dela". Bi neska hauek Arrasate Kirol Proiektuko begiraleak dira. Astean sei egunetan AKPn ari diren neska-mutikoekin lan egiten dute. Astean zehar entrenamendu eta jolas orduak izaten dituzte eta asteburutan partidak.

Leirek 24 urte ditu eta bere bigarren urtea da AKPn. Ihintzek, 19 urteko gazteak, berriz, lehenengo urtea du. Leirek pedagogia ikasi zuen eta Ihintz magisteritza ari da ikasten, heziketa fisiko arloan.

Zein mailetako haurrekin aritzen zarete?

— Leire: Lehenengo mailatik seigarren mailara arteko taldeak ditut, hau da, psiko-



Ihintz Bengoa eta Leire Ezpeleta, AKPko begiraleak.

motrizitate, aurrekirol eta multikirolean ari direnak.

— Ihintz: Nirekin lehenengo eta hirugarren mailakoak ari dira.

Neskak ala mutilak dira zailagoak?

— Leire: Neskak, dudarik ez dago.

— Ihintz: Neskak, eta gainera beti aritzen dira esaten "mutilak hobeak direla eta guk ez dugu jokatu" eta antzerako aitzakiak jartzen dituzte.

Baina gustura aritzen zarete eurekin

— Leire: Bai, jakina.

Honela aritzeko gustatu egin behar da, pazientzia ere izan behar den arren.

— Ihintz: Haurrak ikasten ikustea oso polita da eta aldi berean, norberak ere asko ikasten du. Jokoen arauak barneratzen irakasten du eurei azaldu behar izateak.

Asteburuetako partidak atsegin dituzte haurrek?

— Leire: Haurrak motibatzen modu bat izaten da asteburuetan partidak jokatzea. Astean zehar entrenatu egiten dute, gero euren artean jokatu ahal izateko.

— Ihintz: Bai, eta oso pozik ibiltzen dira. Gainera, badakite puntuazioa bereziki izaten dela eta kontu askorekin aritzen dira kalerik ez egiteko eta partida guztietara taldekide guztiak joateko.

Asteburuko hitzorduak Otsailak 5, larunbata

AURREKIROLA; MINIESKUBALOA

Jurripe

- 09:30** Erguin A - San Viator A
Erguin B - SFX C
- 10:15** SFX D - San Viator B
Merced - SFX B
- 11:00** Aramaio - SFX A
SFX U - Musakola
- 11:45** SFX E - San Andres

MULTIKIROLA ARETO FUTBOLA; NESKAK

- Musakola
- 10:15** SFX A - Merced
 - 10:15** Gazteluondo
 - 10:15** San Viator B - Erguin
 - 12:30** SFX U - San Viator A

MUTILAK

- Gazteluondo
- 09:30** Aramaio - SFX C
 - 11:00** San Viator B - SFX A
 - 11:45** Merced - San Viator A

Musakola

- 11:00** San Viator C - SFX U
- 11:45** SFX B - Erguin

INFANTILAK SASKIBALOA

- MUTILAK Autobusa
San Viator
- 10:30** San Viator - Aozaratzta
Arrasate B - Arrasate A

NESKAK Autobusa

- Almen
- 11:30** Almen - San Viator

FUTBOLA

- NESKAK Autobusa
Atxabalpe
- 09:00** San Viator - Almen
SFX A - Aranzadi B

MUTILAK

- Atsedena:** La Merced, SFX



San Viatorreko saskibaloia nesken taldea.




Multikiroleko San Viator C taldea.

MILURTE BERRIKO IKASTOLA



ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASTOLA • LEHENHITZ HAUR IKASTOLA

**GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ARRASATEKO BULEGOAN
INFORMATU ZAITEZ**




Matrikula egunak:

Otsailak 7tik - 18ra

Matrikula zaitez!

Ordutegia:



Tel. Mugikorra: 636 62 14 13
(Bulego Ordutan)



Arizmendi

943 79 31 32

JASONE MENDIZABAL (AED-KO IDAZKARI OHIA)

“Eguneroko erabilerara”

Enpresa Zientziak ikasi zuen eta bi urtez ARKOn publikizta lanetan ibili ondoren, AED-ko idazkari izan da azkeneko hiru urte eta erdian. Orain atsedenaldia hartzea erabaki du eta berriz ere ikasten hastea. AEDn egindako lanaz aritu gara berarekin berbetan eta baita euskara taldeen beharraz.

— Nolatan hasi zinen AEDn?

— Karrera amaitu eta zortzi hilabetez Irlandara joan nintzen. Itzultzean AEKn hasi nintzen goizez eta taldeekin eskola inter-aktiboak egiteko asmoz ARKorekin harremanetan hasi nintzen bideoak egiteko eta antzerako gauzetan. Hortik sortu zen ARKOn lanean hasteko aukera eta publikizta hasi nintzen. AEDrekin harreman sendoa izatera iritsi nintzen; elkarlan ona dago bi elkarten artean. Kate baten hurrengo lotura izan

zen, momentuko erabakiak hartzea, azken finean.

— Zela baloratuko zenuke AEDn egindako lana?

— AED elkarte bat da eta hor egindako lana bazkideek baloratu beharko dute. Nik neuk oso aberatsa izan dela esango nuke. 15. urteurrena antolatzea izan zen agian tokatu zitzaidan ekintzarik gaxena. Zahar Berri proiektua ere sortu genuen. Oso betegarria da hor ari den jendeak lanerako duen gogoia zenbatekoa den ikustea. Euskaldun berriek freskotasan berezia daukate, euskaraz aritzeak hainbat ate zabaldu dielako eta oso polita da. Ekintza bezala, “Amets asteburua”. Horrenbeste jenden lanean ikustea zoragarria izan zen.

— Baina erabat ez diozu utziko euskararen alde lan egiteari?

— Ez. Hego Haixe talde-


arekin egin ditugun ekintzeekin segituko dut, gustuko dudalako. Hasi nintzenezan banekien epe baterako zela eta pasatu da. Erreleboaren ordua heldu da. Iraunkortasuna, batetik, garrantzitsua da, baina jende berriak freskotasuna ematen die proiektuei.

— AED Debaguneren

barruan dago. Jardunik badu Debagunek?

— Oraintxe berreskuratu gura dugu, batez ere sentsibilizazioan lan egiteko. Debagunek muga bat zuen: bere lana ez zegoela definituta. Bultzada berri bat emateko gogoia dago. Komunikazio arloan badaude asmoak. Talde txikiak ezin dira

“Apustu politikoak dira momentu batean euskarari baliabideak eskaintzen dizkietenak”



“dago erronka nagusia”

asteroko dinamikan sartu, baina agian, Goiena egitasmoarekin badute zer ekarria.

— **Topaguneko bazkide ere bada AED.**

— Topagunearen sorreran egon zen AED; elkarte txikiei babesa emateko asmoz sortu zen eta horretan segitzen du.

— **Euskara taldeen beharrak aldakorak dira herri batetik bestera?**

— Beharrak bai, herri bakoitza ezberdina delako. Ezaguera, erabilera, baliabideak... dena aldatzen da. Arra-

satzen esaterako, euskalduntzeko beharra oraindik bada. Batzuetan erlajazio neak egoten dira eta “AEDk egin dezala” esaten da, baina herri-tarren inplikazioa behar da. Hemen mugimendu handia dago egoera beste herrietan baino larriagoa delako; beharra handiagoa da. Baina argi dagoena da erabilera mailan erabaki politikoak hartzen direla eta apustu politikoak direla momentu batean euskarari baliabideak eskaintzen dizkietenak.

— **Zein da euskararen**

egoera Arrasaten?

— Zaharren erabilera gutxitu egin da. Prozesu kurioso dago hori azaltzeko: etorkinak zahartu egin dira eta eurek nolabait zaharren batez besteko erabilera jaitsi egin dute. Gazteek eta haurrek gehiago erabiltzen dute, baina prozesua oso geldia da. Ez dago formula zientifikorik hau berreskuratzeko eta ekintzak, kanpainak eta antzekoak egin dira eta gero horren emaitza ebaluatu behar da eta hobetu eta berriro aldatu. Erabilera ez da bakarrik ikastetxetan bultzatu behar, baita aisial-

dian ere. Prozesu dinamikoa da. Gure eguneroko erabilera dago erronka nagusia.

— **Zer egingo du Jasonek orain?**

— Batetik, apurtxo bat ikasi irakaskuntzarako aukerak izateko eta bestetik, etxean konponketak egin.

— **Zure ordezkoarentzat aholku bat?**

— Aholkurik ez, animoak, guztiak. Itzeleko gogoa dauka, baina beno, agian, gauzak banan-banan egin ditzala, bestela piloa egingo zaio eta. ■

Loramendi kirolak

HELDU ETA UMEENTZAT

- **Sudaderak**
- **Prakak**
- **Txamarrak**
- **Zapatilak**
- **Forro polarrak**


ZATOZ!

% 50

San Andresen eta Garibain

XAKEA

Berandu, baina ondo




Preferente mailako San Andres Xake taldeak 4 eta

0 irabazi zion Beraun Bera B taldeari joan den asteburuan. Euskal Ligan aritze-ko aukerarik ez du jadanik laukoteak. Izan ere, asteburu honetan Añorgaren aurka jokatu behar dute. Añogatarrak txapeldun ordea gera daitezke eta agian igoera aldiko partidarik barik Euskal Ligara pasatu. Hori dela eta, asko dute jokoan eta neurketa gogorra izango da.

ESKUBALOIA

Etxean ere bai



Bigarren astez segidan, irabazi egin zuen Arrasate Almen eskubaloi taldeak. Eta oraingoan, gainera, etxean izan da. Leitzarango taldeari 26 eta 23 irabazi zion Bernardo Balerdiren taldeak. Denboraldi honetan irabazten duten hirugarren partida izan zen igandekoa.

Hasiera batean bi taldeen

arteko indarrak parekatuta egon ziren. Etxeko zein kanpoko jokalariek gogor ekin zioten erasoari eta partidaren lehenengo zatia etxekoan aldeko 13 eta 12ko emaitzarekin amaitu zen.

Bigarren zatian Leitzarangoek ez zieten garaipena erraztu arrasatearrei eta bi taldeen arteko alde bi golekoa baino ez zen izan.

Aste honetan Allerru taldearen aurka jokatu dute Lezoko kiroldegian. Gazte mailako taldea izango da etxean arituko dena. Donibane A24 taldearen aurka izango da, igandean, 11:30ean.

Errejonial mailako nesken taldeak, denboraldiko azken partida jokatu zuen asteburuan: derbia. Bergararen aurka izan zen eta galdu egin zuen Esti Loitiren taldeak. Azken emaitza 0 eta 2koa izan zen. Mondrak talde gaztea du. Lau hilabete baino ez dute egin elkarrekin jokatzeko Mondrako jokalariek eta hori emaitzetan zein jokoan igarri da. Izan ere, beste tal-

13-23 zioen markagailuak. Bigarren zatian beasaindarrek gogortu egin zuten defentsa, baina ez zen nahikoa izan. 17. minutuan 28 puntuko alde zuten Kenci Arrasatekoek beasaindarren aurrean.

Saskiratze gehien Gamarak lortu zuen, 22 puntu.

Larunbatean Zarauzko Urteta Plastikoak taldea izango dute aurrez aurre Iturripen. Norgehiagoka larunbatean izango da, 16:00etan. Juniorrak ere etxean arituko dira. Musakolan larunbatean 16:00etan, Goierriren aurka.

FUTBOLA

Azkenengoan ere galdu



Errejonial mailako nesken taldeak, denboraldiko azken partida jokatu zuen asteburuan: derbia. Bergararen aurka izan zen eta galdu egin zuen Esti Loitiren taldeak. Azken emaitza 0 eta 2koa izan zen. Mondrak talde gaztea du. Lau hilabete baino ez dute egin elkarrekin jokatzeko Mondrako jokalariek eta hori emaitzetan zein jokoan igarri da. Izan ere, beste tal-

deetako jokalariek askoz ere denbora gehiago daramate jokoan eta beterano izateak beti du aldeko zerbait honelako kirolean. Dena dela, Mondra sailkapenean erdi aldeko tokietan gelditu da. Hemendik aurrera kopako partidak jokatu beharko ditu.

ATLETISMOA

Arrasatearrak bikain



Bi krosetan parte hartu zuten Arrasate Kirolak Atletiko taldeko kirolariek joan den asteburuan. Betenaroenak Lasarteko nazioarteko krosetan egon ziren eta 5.650 m.tan


Jabier Mentxaka 49. izan zen eta Cesar Diez, berriz, 76.

Bestalde, Idiazabalgo herri krosetan, Fernando Nogales 18. tokian helmugaratu zen, 10.000 m.ko lasterketan. 4.347 metroan Maitane Arizmendiarrieta bosgarren izan zen eta Mari Jose Gil beteranoa 11.

Otsailaren 6an, igandean, Euskal Herriko herri krosa izango jokatu da eta Arrasateko korrikalariak ere Muskizera abiatuko dira.

SASKIBALOIA

Lehenengoari eutsiz



Kenci Arrasate saskibaloit taldeak sailkapenean lehen tokia irabazi egin zuten asteburuan 64-87 irabazi zion Beasaingo BKL taldeari. Jadanik sei partida segidan irabazi ditu Arrasateko taldeak.

Arrasatearrak izan ziren partidaren jaun eta jabe hasieratik. Lehen 10 minutuetan

Arrasatearrak sarituak

Joan den larunbatean banatu zituen Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak aurtengo Challengeko sariak. Arrasateko ordezkariak frontenisean, tenisean eta squashean irabazi dute trofeoarik. Frontenisean Candido Hurtado eta Jose Izquierdo txapeldun izan ziren eta Iñaki Sanchez eta Kepa Gartzia txapeldun orde. Tenisean Jose Caballero txapeldun eta squashean, berriz, Jose Gorosabel txapeldun orde. Oñatiko Zubi-



koa kiroldegian izan zen sari banaketa.


Palan egin aritu ziren arra-

satearrak, baina modalitate honetan ez zuten zortirik izan.

Judo txapelketa

Gipuzkoako eskola arteko judo txapelketa jokatu zen joan den igandean Musakolako kiroldegian. Eta Arrasateetik hasiera batean zortzi lagun egon behar ziren arren, azkenean erdiek baino ez zuten parte hartu. Dena dela, emaitza politak lortu zituzten. Alebinetan, mutilen artean, Ander Gartzia bigarren izan zen eta nesketan, Lidia Casas lehenengo gelditu zen, beste inor aurkeztu ez zelako. Sailkapen orokorrean Elgoibar eta Eibarreko taldeek irabazi zituzten domina gehien.

Aspe eta Asegarce, Uarkapen



Pilotalekua inauguratu zeneko jaialdiaren une bat.

Aspe eta Asegarce pilota enpresek Uarkape Udal Pilotalekuan gutxienez bina pilota jaialdi antolatzeko konpromisoa hartu dute.

Joan den astelehenean Aspe eta AUKEAko ordezkariak elkartu ziren. Aspeko Fernando Bidartek hemendik eta ekainera bitartean bi pilota jaialdi antolatuko direla baieztatu die AUKEAko ordezkariak. Eskuz banakako txapelketako norgehiagoka litzateke horietako bat.

Asegarcerekin asteazke-

nean bildu ziren AUKEAko ordezkariak eta handik ere oso inpresio onarekin atera ziren bi aldeetako ordezkariak. Manolo Zubillagak eta Iñigo Salbideak beste hiru jaialdi Uarkape Udal Pilotalekuan jokatu daitezkeela adierazi zieten.

Hauetako bat eskuz binakako txapelketako partida litzateke eta bestea Lehendakari txapelketakoa. Asegarcek beste partida bat ere egongo litzatekeela azaldu zien AUKEAkoiei.

DIRU KONTUAK

Diru kontuak lotzea besterik ez da falta, beraz. Horretarako, hil honen bukaeran berriz ere elkartzekoak dira alde guztiak eta mahai gainean dauden aukeretatik egokiena aurkeztuko die Udalak bi pilota enpresei. Izan ere, telebistak Uarkapen egoteko aukera argudiatu zuten Aspek zein Asegarcek.

Bestalde, Asegarce pilota enpresak aurtengo argazki ofiziala Uarkape Udal Pilotalekuan aterako duela baieztatu dute enpresako ordezkariak.

TABERNAREN ARDURADUNA

Paco Martin Robles arduratu da udal pilotalekuaz; hala erabaki zuen AUKEAren zuzendaritza batzordeak joan den astelehenean. Robles arduratuko da tabernaren ustiapenez ere. Datozen bost urteetan izango du ardura hori.

Horretaz gain, berarengana jo beharko du pilotalekua erabili nahi duen edonork, horretarako txanda hartu ahal izateko.

Debarroko pilota txapelketa

Asteartean bertan ekin zioten Debarroko eskuz binakako pilota txapelketari herriko pilotariak.

Antzuolan jokatu zuten lehenengo jardunaldia. Gazte mailako partida jokatu zuten, baina arrasatearrek, Agirrek eta Domingezek, ez zuten zortea handirik izan, 22 eta 14 galdu zuten eta. Seniorretan, Lazkanok eta Belategik 22 eta 9 galdu zuten Samaniego eta Idiakezaren aurka.

Datorren asteazkenean

Aretxabaletan jokatu dute kadeteetan Uribarren eta Zuazuak; gazte mailan Agirre eta Domingezek eta seniorretan Lazkano eta Belategik.

SEI HERRI

Arrasateko bikoteekin batera Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Antzuola eta Bergarako bikoteak ari dira txapelketa honetan. Hori Debagoieneko herriei dagokienez. Izan ere, txapelketa Debarro osoan jokatu dute. Honela Debaba-

rrean Deba, Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Elgetako bikoteak arituko dira.

UDABERRI SARIA

Bestalde, asteburuan Gipuzkoako Udaberri txapelketa hasiko da. Arrasatek bi bikotek jokatu dute. Lehen urteko kadeteetan Zuazua eta Agirre arituko dira Iturripen, 11:00etan Añorgaren aurka. Bigarren urtekoek, Uribarren eta Jimenezek, Azpeitian izango dute norgehiagoka.



ARRASATE
KIROLAK

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saiban, sari mundiala etxeratzeke.

Aurreko asteke erantzuna: Terranova

Galdera: Zeintzu izango dira Inurrategi anaiek martxoan igoko dituzten bi mendien izenak?

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea: Tel.:

Honela jokatzen al da Zaldibarren?



AKTA eta Koka Juniors taldeek gogoz hartzen dute txapelketa. Dударik ez da. Begira zelako borroka izaten dituzten Zaldibarren. Oraingoan Koka Juniors Basati taldea nagusitu zen, 3 eta 5. Izana eta izena bat etorri ziren.

BOSGARRENA KALERA

Hau da, gero Zaldibarko taldeak erakusten ari diren ganora! Joan den astean beste talde bat gelditu da txapelketatik kanpo. Eta honekin bost dira.

Oraingoan EPEH taldeari tokatu zaio. Joan den larunbatean Makanudos taldearen aurka jokatu beharra zuen, baina ez agertzea erabaki zuen. Gauzak horrela, EPEH taldea

txapelketatik kanpo gelditu da eta Makanudosek, partida irabazi du jokatu barik. Izan ere, horrelakoetan tarte gutxienerekin (0-1), baina agertu den taldeari ematen zaizkio puntuak.

Aurten ez dirudi zailtasun askorik izango dutenik taldeek txapelketan aurrera egiteko. Talde batzuek jartzen duten gogoarekin behintzat! Beraz,

jokatzeko gogoia duzuenok aprobetxatu aukera hau. Agian inoiz baino errazagoa izango da eta txapelketa uste baino hobeto amaitzea.

GOLEGILE BIKAINAK

Giraldilla Conecction eta Kobate DKB taldeen arteko partidaren aspaldian ikusi zen gol zaparradarik handiena izan zen. Joan den larunbatean 23

gol jaso zituen Giraldilla taldeko atezainak! Edo ez zegoen atezainik?

ZUZENKETA

Joan den astean Betraye eta Orlando Piratas taldeen arteko emaitza gaizki eman genizuen. 0 eta 2 jarri genuen, baina Betraye taldeak irabazi zuen 2 eta 0.

Barkatu eragozpenak!



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Sailkapenak

Emaitzak

A taldea

Goma 2 2 - Ume Zikinak 9
 Kan. Harrobia 4 - Sau. Scream 4
 Giraldilla Con 2 - Kobate DKB 23
 AT Lokala 2 - Betraye 3
 Orlando Pir. 3 - Xhasss Ugarte 2
 Etxe Mobil 1 - AC Surkos 2
 Atxanta el ret. 1 - Fraguol Gol 10
 Kom. Alpargat 7 - You Know 5

B taldea

Alai Gozokiak 1 - Aurrera Bolie 3
 EPEH 0 - Makanudos 1
 IKP 7 - Txeyenex 5
 AKTA 3 - Koka Juniors 5
 Borrock & Roll 2 - Kamasutra 9
 Branka tab. 4 - Potroak 2
 Etxerat Tab. 3 - Makai 3
 Serengeti 1 - Dribling 7
 Garaje Socar 4 - SAS T 1
 Timoftol 6 - You Know 4

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
K. Alpargat	10	8	2	0	50	31	18
You Know	9	8	0	1	59	29	16
Orlando	10	7	2	1	53	28	16
Irati STS	10	7	0	3	66	38	14
Ume zikinak	10	6	2	2	63	36	14
AT Lokala	10	7	0	3	45	32	14
Kanpazar Harrobia	10	6	2	2	44	25	14
DA Iristu	10	6	1	3	43	49	13
Sau. Scream	10	6	1	3	41	29	13
Kobate DKB	10	6	0	4	60	30	12
Betraye	10	6	0	4	37	37	12
AC Surkos	10	5	1	4	48	34	11
Goma 2	10	5	0	5	40	38	10
Xhasss Ugar.	9	1	4	1	61	39	9
Fraguol Gol	10	4	0	6	40	46	8
Totem	10	3	0	7	18	32	6
Sokoakoak	10	2	1	7	23	43	5
Girandilla Con.	10	2	0	8	38	97	4
Atxanta el Ret.	10	1	2	7	19	78	4
Etxe Mobil	10	1	1	8	34	37	3
Bar Nuevo	10	1	0	9	21	85	2
Lontxo Tab.	10	0	0	10	0	10	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Timoftol SMD	10	7	2	1	53	25	16
Dribling	9	8	0	1	49	14	16
IKP	10	7	1	2	48	31	15
KJ Basati	10	7	0	3	58	42	14
Kamasutra	10	6	1	3	48	29	13
Txeyenex	10	6	1	3	43	39	13
Branka Taberna	10	5	2	3	61	37	12
Etxerat Tab.	10	4	4	2	46	32	12
Aldibi	9	5	1	3	36	39	11
Borrock & Roll	10	4	2	4	40	40	10
Garaje Oscar	10	3	4	3	39	30	10
Serengeti	10	4	2	4	27	38	10
EPEH	10	4	1	5	43	47	9
Makanudos	10	4	1	5	27	56	9
Alai Gozokiak	10	3	2	5	34	42	8
KK Jauriaritzari	10	4	0	6	29	25	8
Aurrera Bolie	10	3	2	5	22	38	8
Potroak	10	2	3	5	28	37	7
AKTA	10	3	1	6	27	29	7
Leya	10	2	2	6	29	40	6
Sas T	10	1	1	8	27	52	3
Makai	10	0	1	9	35	87	1

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak / 11. jardunaldia

Iarunbata, 5

Zaldibar	Epalea
08:50	Saukelu Scream - Atxanta el Retorno (Makanudos)
10:00	Makanudos - Makai (Saukelu Scream)
11:00	Branka Taberna - Garaje Oscar (Makai)
12:00	Irati STS - Goma 2 (Branka Taberna)
13:00	Komando Alpargat - Giraldilla Connect. (Irati STS)
14:00	Fragel Gol - DA Iristu (Komando Alpar.)
15:00	Ume Zikinak - Kanpanzar Harrobia (DA Iristu)
16:00	Txeyenex - Timoftol SMD (Kanpanzar Harrobia)
17:00	Borrock & Roll - Serengeti (Timoftol)
18:00	Potroak - Etxerat Taberna (Borrock & Roll)
19:00	Aldibi - Koka Juniors Basati (Etxerat)

Iturripe A

15:50 Alai Gozokiak - IKP
 17:00 Dribling - Aldibi

Iturripe B

15:50 Sas T - Aurrera bolie
 17:00 Leya - AKTA

Igandea, 6

Zaldibar

11:00 You Know - AC Surkos
 12:00 Orlando Piratas - Bar Nuevo
 13:00 Xhasss Ugarte - AT Lokala

Epalea

(Aldibi)
 (Alai Gozokiak)

Epalea

(Leya)
 (Sas T)

Epalea

(Orlando)
 (You Know)
 (Bar Nuevo)

Atsedena: Kamasutra, DKB

Sierra de Gata eta Arrasate, elkar ezagutzen

Gaur, ostirala, arratsaldez hasi eta biharko egun osoan zehar, Caceres probintziako Sierra de Gata eskualdeari buruz zeozer gehiago jakiteko aukera izango dugu, bertako 132 pertsonako taldea etorriko baitzaigu bisitan.

Adisgatak, Sierra de Gataren garapenerako elkarteak, antolatu ditu jardunaldi hauek, Corazon de Encina Extremaduraren elkartearen eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin. Iaz Valverde del Fresnora joan ziren arrasatearren bisitaldian itzulera moduan antolatu da oraingoa. Alkatea eta Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren hantxe, Arrasateko kultura arloko hainbat talderekin batera.

Gaur, arratsaldeko 19:30etan ekingo zaio kultura topaketari. Eta modu onean ekin ere, Sierra de Gatako gastronomia eta artisautzako produktuei buruzko hitzaldia izango baita Monterron jau-



Corazon de Encina elkarteko kideak Landan iazko festa batean.

regian. Herriko merkataritxikiei dago zuzendua, Sierra de Gatako produktu naturalak ezagutu ditzaten. Geroxeago, 21:00etan, Sierra de Gata ikusi ahal izango dugu, Extremaduraren Kultura Zentroko aretoan eskainiko den bideo emanaldiari esker.

OGI-MAMIEN EGUNA

Eta eguakoitzean Sierra de Gatako janari tipikoei buruz

ikasi badugu, larunbatean izango da entzundakoa egia ote den egiaztatzeko ordua, 11:30etatik aurrera izango den produktu dastaketari esker. Olibak, gaztak, ardoak eta gozogintza izango dira aukeran, besteak beste.

Baina plater sendoena Extremadurako Ogi-mamiak izango dira. Lurralde hartako tradizio bat berpiztuko da, bertako artzaiek ogi frijituarekin,

urdaiarekin eta urarekin prestatzen zituzten "ogi-mamiak" eskainiko baitira dastatu nahi dituenarentzat. Jesus Rodriguezek, Corazon de Encinako lehendakariak esan duenez, dagoeneko 800 ogi gertatu dituzte horretarako.

Ohiturazko jakiez gain, Sierra de Gatako artisautza ere ezagutuko dugu Laubide plazan egokituko den erakustokian. Burdinazko lanak, larrugintza, ehoziri lanak eta zurgintzako produktuak erakustiko dizkigute Adisgatakoek.

Eta topaketa jardunaldia era onean amaitzeko ez dago musika bezalakorik. Caceresetik etorriko diren bi dantza taldek Corazon de Encinako taldearekin bat egingo dute hango dantzak eta abestiak eskaintzeko, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Denetarik dago, bada, egitarau honetan. Extremaduraren eta euskaldunok elkar ezagutzeko aukera paregabea izango dugu.

Zinea eta antzerkia, aspaldiko partez

Udazkenetik zine eta antzerki emanaldirik gabe egon ondoren, otsailean eskaintza polita dakar Udalaren kultura egitarauak.

Ostegunero dute zinezaileek Amaia antzokian primerako filmeak ikusteko parada. Urritik ez zen zine emanaldirik antolatzen, egun desegokiengatik, baina Jon Garai Udaleko kultura teknikariaren



esanetan, uztailean arte emanaldiak etenik gabe jarraitzeko asmoa dago.

"DAMA ETA KARDINALA"

Eta hilaren 13an, antzerki zaleen txanda iritsiko da, Txalo Produkzioak taldearen eskutik. "Dama eta Kardinala" eskainiko digute, Ane Gabarain eta Kandido Uranga aktoreen lanarekin.

EGUZKIGRAF inprimategia

Industrialdea F-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARITXABAETA

Danona

KARROZERIAK


Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

MANOLO QUEVEDO (MARGOLARIA)

“Herrian erakusteko garaia dela uste dut”

Margotzen aspaldi hasi zen arren, erretiratu zenetik denbora gehiago eskaintzen dio bere afizio honi. Eta fruituak ere eman dizkio. Joan den urtean Eibarren egin zuen lehenengo erakusketa eta oso gustura gelditu zela dio. Ostiraletan, ordea, erronka handiagoa du. Arrasaten, Harresi aretoan, jarriko ditu ikusgai bere margolanak. Dena dela, Manolak nerbioak baino kuriositatea dauka, lagunek eta Arrasate Margo Taldeko kideek bere lanari buruz esango dutena jakin nahi duelako.



— Margotzea harrapatzen duen artea da eta gozamenaz betetzen du. Zure esaldia da hori.

— Margolan guztiak desafiok dira margolariarentzat. Nire kasuan horrela izaten da. Mihise zuriaren aurrean jartzeak zirrara berezia eragiten dit, baina kolorez betetzen joaten naizen heinean, bete egiten zaizkit barrenak.

— Lehenengo aldiz Arrasaten erakusketa ireki duzu? Horrek ere egingo dizu zirrara...

— Bai, baina ez nago urduri. “Suzko proba” Eibarren izan zen iazko aste santuan eta oso harrera ona izan zuen. Margolanen bat edo beste saldu ere egin nuen. Orain beste urrutiko herri batera ere joan ninteke erakusketa batekin, baina herrian erakusteko garaia dela uste dut. Gainera nire lagun eta Arrasateko Margo Taldeko kideen aurrean nire lanak zer eragiten duen jakin nahi dut, euren iritzia jaso nahi dut. Ilusioa egiten dit, nahiz eta dena ondo ateratzea nahi dudanez horrek ere urduritasun pittin bat ere eragin.

— Zer ikusiko dugu Harresi

aretoan?

— Hogeita hamar margolanek osatzen dute erakusketa. Gehienak paisajeak dira. Gustuko dut honelako margoak egitea. Izadi hila ere atsegin dut eta horrelakorik ere jarri dut Harresin.

— Paisaje ezagunik ikusiko dugu?

— Paisaje errusiarrak dira nire gustukoenak, baina horrek ez du esan nahi hemen inguruan ikusten duguna baztertzen dudunik. Orain dela urte batzuk zuhaitzak margotzeari ekin nion eta bi urte oso eman nituen zuhaitzak margotzen. Lana egin aurretik ikasi egiten dut, ikertu egiten dut, bideoak ikusi, liburuak irakurri, museoetara joan eta horrek denak, ikuspuntu zabalagoarekin lan egiteko aukera eskaintzen du.

— Beraz, izango duzu margolari faboritorik?

— Manet eta Monet aipatuko nituzke.

aste gazte

■ LANA

• Nafarroako Parlamenturako euskara itzultzailea behar da. Epea: otsailak 16.

• Atzerrian, gaztelania hizketarako laguntzaileak behar dira. Epea: otsailak 11.

• Irungo Udalerako, Gazte Informazio Bulegoko informazio eta tramitazio laguntzailea behar da. Epea: EAOean argitaratu zain geratzen da.

■ LEHIAKETAK

• “Bihotzaren Hitzak” Amodiozko Gutunen V. Lehiaketa antolatu du Barakaldoko Kultur Etxeak. Gehienez 2 folioko gutunak, ahal dela eskuz idatziak eta euskara nahiz gaztelaniaz. Epea: otsailak 14.

• Arrasateko Udaleko Emakume Sailak, “martxoak 8”ko kartel lehiaketa. Epea: otsailak 14.

• Arrasateko Ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa. Teknika libre, soporte bertikalean eta “2000 Haratuzteak Arrasate” lemapean aurkeztu beharko dira lanak. Epea: otsailak 21.

■ IKASTAROAK

• Udaleko Gazte Zerbitzuak Txalaparta ikastaroa antolatu du: otsailaren 11tik maiatzaren 13ra. Ostiraletan, eta larunbatetan, Musakolako Gazte Txokoa.

• Goikobaluk Kantu Tailerra antolatu du, 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Astelehenetan, Setatik 6etara Gazteluondo Ikastolako Aretoan izango da.

• Leintz Zeramika Eskolak zeramika ikastaroa antolatu du. Astearte eta ostegunetan, 7etatik 9etara izango da.

• Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenero perkusio ikastaroa, 6etatik 9ak arte eta Arrasateko Gazteluondo Ikastolan.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

Otsailaren 20ra arte
Harresi aretoan izango ditu ikusgai bere lanak



Programazioa

OSTIRALA, 4

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestatu-
rikoko plater bat.
- 13:45** Ekilan (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko berrie nagusien errepaso.
- 22:00** Soinuz Blai. Edu abasolok aurkeztuta (errepika).

LARUNBATA, 5

- 13:30** Asteko programen errepikapena: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 6

- 13:30** Asteko programen errepikapena: Hamaika Magazin, Aurrez Aurre, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA, 7

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestatu-
rikoko plater bat.
- 13:45** Astebete (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Mondrasport. Itxaro Zubillaga eta Xabier Urzelaireren eskutik

- asteburuko kirol emaitzak jakingo ditugu.
- 22:10** Gatza eta Berakatz (errepika).

ASTEARTEA, 8

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariak prestatu-
rikoko plater bat.
- 13:45** Mondrasport (errepika).
- 19:20** Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haurren lehiaketa.
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, horoskopoa eta hainbat konturen berri izateko aukera izango da.
- 22:00** Gatza eta Berakatz (errepika).

ASTEAZKENA, 9

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz. Jose Ignacio Lasa

- Begarako Batzokiko sukaldariak prestatu-
rikoko plater bat.
- 13:45** Hamaika Magazin. Arantzazu Lagunillak aurkeztuta, osasuna, sexualitatea, horoskopoa eta beste hainbat konturen berri jakiteko aukera izango da (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez Aurre. Edurne Mujikaren eskutik arrasatear interesgarrien baten bizimodua ezagutzeko aukera izango dugu.
- 22:00** Gatza eta Berakatz (errepika).
- 22:10** Soinuz Blai.

OSTEGUNA, 10

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz. Jose Ignacio Lasa Bergarako Batzokiko sukaldariarekin.
- 13:45** Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak
- 21:30** Guganda. Aste honetako programan, kanpo zorraren inguruan arituko

- dira Aintzane Gardoki eta gonbidatua.
- 22:00** Gatza eta Berakatz (errepika).
- 22:10** Musiklasik. Iñaki Olaizolak aurkeztu-
ten duen saio honetan, Carmina Buranaren bigarren zatia ikusteko aukera izango dugu. Baita Santa Ageda eguneko zenbait pasarte ere.

OSTIRALA, 11

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatz. Jose Ignacio Lasarekin.
- 13:45** Guganda (errepika).
- 20:00/20:30/21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Maider Osaren eskutik asteari errepaso egingo diogu.
- 22:00** Gatza eta Berakatz (errepika).
- 22:10** Musiklasik. Iñaki Olaizolak aurkeztu-
ten duen saio honetan, Carmina Buranaren bigarren zatia ikusteko aukera izango dugu. Baita Santa Ageda eguneko zenbait pasarte ere.

Gatza eta Berakatz

Sukaldaria: Jose Ignacio Lasa (Batzokia jatetxea) Bergara.

NOIZ	PLATERA
Astelehena 7	Txanpinoi nahaskia.
Astearte 8	Patatak errioxar erara.
Asteazkena 9	Bildotsaren besoa saltsan.
Osteguna 10	Langostino brotxeta pikillo gaztarekin.
Ostirala 11	Bakailoa langostinoekin.

Kanpo zorrari buruz

Guganda osteguna, 21:30

Kanpo zorraz hitz egingo dute datorren ostegunean Guganda saioan. Horixe aukeratu dute saio honetako arduradunek hurrengo asterako. Kanpo zorraz hartuko du saioaren zatirik nagusia, erreportajea eta elkarrizketa, hain zuzen ere. Aintzane Gardokik aurkeztu duen saio honetako kideek bi arrazoi nagusi daude la diote kanpo zorraz aritzeko.

Batetik, Hirugarren Munduko herri askorentzat oztopo izugarria delako. "Mozanbikeren kasuan esaterako, hamar mutikotatik sei bakarrik joaten dira eskolara eta urtero 200.000 ume hiltzen dira beherakoak eta antzeko gaitzek jota. 1996an hezkuntzan eta osasunean inbertitutako diruaren bi halako erabili zuen kanpo zorra ordaintzeko". Beste adibiderik ere jarri digute Gugandako kideek, "Nikaraguan bost urte baino gutxiagoko umeen laurdenak gutxiegi jaten du eta biztanleen %35ek ez daki irakurtzen. Kanpo zorra ordaintzeko arlo sozial guztiak

batuta baino diru gehiago erabiltzen du gobernuak. Nikaraguako kanpo zorra urtebetean ekoizten duen guztia baino sei aldiz handiago da".

Saio horretan entzun ahal izango ditugunen adibide baino ez dira horiek.

Izan ere, herrialde garatuetan kanpo zorrari buruz dagoen tratamenduz ere arituko dira. Horixe baita, euren ustez, gai horri buruz aritzeko bigarren arrazoi nagusia. "Herrialde garatuetako gobernuak ez diete bat ere laguntzen kanpo zorra duten herrialdeei. Garapena lortzeko beharrezkoa duten dirua eskatzen aritzen gara uneoro eta ez diegu lagatzen autosufiziente izaten".

Badakizue beraz; kanpo zorrari buruzko informazioa eta eztabaida izango dira nagusi Guganda saioan aste honetan.

Eta Debagoieneko Gobernu Kanpoko Erakunde bateko kide batekin ere berba egingo dute eta bestelako albisteen berri ere izango duzue.

10 urte, 10 ordutan




Begoña Garai 1990.eko aurkezlea.

Arrasate Telebistak hamar urte beteko ditu otsailaren 13an. Hori dela eta, egun horretarako saio berezi bat prestatzen ari da. Hamar orduko telebistako saio bat, hain zuzen ere. Hamar ordu horietan hamarkada honetan ATBk eskaini dituen saio guztien bilduma egin nahi da. Lehenengo urtetatik gaur egunera arte etxe honetatik pasa diren aurkezleak berriz ikusteko aukera izango da saio horretan, eta garai batean ATB ezagutzera eman zuten telebista saioak gogora ekarriko dira berriz

ere. Izan ere, saioak ordubeteko tartek eskainiko dizkio herri telebista honetan izan diren kirol, jolas, musika, elkarrizketa, albistegi eta bestelako saio guztiak.

Baina saio berezia den aldetik zuen, ikus-entzuleon, parte hartzea ere behar da. Hori dela eta, telefono batera deitu ahal izango da programan zehar eta ATBri buruzko iritziaz eta bestelako kontuez galde egingo dizuete aurkezleak.

Telefonoa 943 71 23 93 izango da.



Anne Igartiburu, Jose Maria Gorordo elkarrizketatzen 1993an.

**Animatu parte hartzera,
guztion artean sari paregabea
zotz egingo da eta!**



ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Bergara erdialdean etxea salgai. Tel.: 943 76 54 24. Gaeuz.

• Etxebizitza salgai Oñatin, San Lorentzo auzoan. Tel.: goizez, 945 01 86 54, arratsalde, 943 71 62 92.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 79 53 70.

• Ikasleentzat etxebizitza alokagai. Tel.: 943 79 39 02. Gaeuz deitu 21:00etik aurrera.

• Etxebizitza guztiz jantzia alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta berogailu zentrala. Olarte kalean. Tel.: 943 79 11 99.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle batek gela bat behar du otsailetik aurrera. Tel.: 943 83 36 57.

• Etxebizitza konpartitu batean, gela bat beharko nuke. Tel.: 943 79 68 00.

• Baqueira aldean ostatu hartu nahiko nuke. Tel.: 943 79 57 31.

5. Etxeak osatzeko

• Etxebizitza osatuko nuke Arrasaten otsailetik aurrera. Tel.: 943 61 99 24.

• Pertsona bat behar da otsailetik aurrera bi gelako etxebizitza bat osatzeko, San Andres auzoan. Tel.: 943 83 36 57.

• Logela bat dut alokagai etxebizitza batean. Tel.: 617 72 47 83.

• Pertsona bat behar da langileen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

• Garajea salgai Kontzeziño kalean, 17 m²koa. Tel.: 943 79 46 88. 19:00 - 21:00.

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxeak osatzeko
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzen da Uarkapen. Tel.: 943 79 13 97.

• Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

• Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Akademia batek eskola partikularrak emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

• Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

14. Errentan emateko

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko lokaia alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

• Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

LANA

17. Eskaintza

• Emakumea prest arratsalde umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Ile apaintzaile titulatuak lan egiteko prest. Tel.: 943 79 53 57. Mainer.

• Neska umeak zaintzeko prest, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

• Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da haur bat zaintzeko. Interesatuok deitu 639 45 85 08 telefonora. Mertzex.

• Oñatiko enpresa batean bi langile behar dira: autoen mekanikoa eta pintorea. Tel.: 943 78 19 50.

• Dendaria behar da Arrasaten, 20 urtetik gorako neska. Tel.: 943 79 44 88.

• Emakumea behar dut neskatila

bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 29 19.

• Zerbitzari euskalduna behar da jate-txe batean astebukaeretan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Pertsona bat behar da tabernan zerbitzari lanak egiteko, asteburuetan. Tel.: 943 79 02 25.

• Neska bat behar dut asteburuetan zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 76 22 68.

• Zerbitzari bat behar dut tabernan lan egiteko. Tel.: 943 79 58 50.

• Zapata konponketan ikasi nahi duen neska-mutila behar da. Tel.: 943 76 22 27. Aitor

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

21. Eskaerak

• Hirugarren DBHko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 42.

• Logseko 2. mailako matematika eta fisikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 69.

• 1.ko LHko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 639 48 00 28. Arratsalde eta gaeuz.

• Ingelesez hitz egiteko mintzalguna nahi dut. Ordu bete edo pare bat ordu astean. Trukean euskara erakutsiko nioke. Tel.: 943 79 82 66.

• Logseko 2. mailako fisikako eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 55 60. Arratsalde.

MOTORRA

23. Saldu

• Yamaha XJ-600 salgai. Egoera onean, merkea. Bi maleta oparizatzen. Tel.: 943 79 26 35.

• Kawasaki Volcan 500 cc. motora salgai. 21.000 km.ditu. Pantaila, bizkar babesa, defentsak eta alarma, urrutiko kontrolagailuarekin.

Kaskoa dohain. 535.000 pta, negoziagarriak. Tel.: 943 77 08 69.

• Fiat Tipo autoa salgai. 16 balbula. Matrikula: SS-AM. Tel.: 943 76 06 53.

• Vespino motorra salgai, gutxi erabilia. 50.000 pta. Tel.: 619 65 40 69.

• Trialerako motorra salgai. Gas gas 215. 92. urtekoa. Tel.: 943 79 78 36.

DENETARIK

26. Saldu

• Shin-tzu txakur kumeak salgai. Tel.: 946 84 26 86.

• Lau urteko bi logela oso salgai. Tel.: 616 81 15 96. Jose Luis.

• Bizikleta estatikoa salgai. Tel.: 943 79 12 46.

• Digitech RP7 balbe gitarra pedalera salgai. Prezioa: 66.000 pta. Tel.: 943 79 30 77. Liher.

• Boxer arrazako txakur kumeak salgai, pedigreearekin. Tel.: 696 05 73 46.

• Euskal artzai txakurraren kumea salgai. Hilabete eta erdikoa. Merke. Tel.: 943 79 60 48. Nerea.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 W-dun aplikadore eta lbanex baxu elektriko bere kutxatilarekin batera, salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Bulegorako altzariak salgai. Tel.: 943 79 84 35.

• Umeentzako kotxetxoak salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 71 52. Isa. Bulego orduetan deitu.

• Bigarren eskuko Eiccini 100 akordeoia salgai. Tel.: 945 40 33 63.

• Fondoko eskiak salgai, ekipo guztia, neurria 42, bi aldiz besterik ez ditut erabili. Tel.: 943 79 88 83. Mikel.

• Teknografo (marrazki taula) pare bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 11 80.

• Soinu txikia salgai. Berrira, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Bigarren eskuko Pigni markako akordeoia salgai. Tel.: 943 79 13 88. Amaia.

• Playstation berria, erabili gabea,

salgai. Dual Shock. Bi joko. Tel.: 943 79 65 80. 17:30-20:30.

• Natural hazitako txahal labelduen izozkailuan sartzeko salgai. Tel.: 689 54 18 61.

• Whipit piragua salgai, arrauna, bai-nuestalkia, eta bi puxika. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

• Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

27. Erosi

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

• Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Tel.: 639 82 27 90.

29. Eman

• Ehizako hiru txakurkume emateko. Bi hilabete baino ez dute. Tel.: 943 79 55 07.

31. Galdu

• Urrezko eskumuturrekoa galdu zait Larrea plaza eta San Viator Txiki inguruan. Aurkitu baduzu, deitu 943 79 81 50 telefonora, mesedez.

• Jokin Zaitegi plazan bi giltza-sortaga galdu nituen. Sobre baten barruan zeuden. Aurkitu dituenak, mesedez, telefono honetara deitu dezala: 943 75 22 74. Arratsaldean.

• Plumifero urdin bat galdu dut azoka inguruan. Tel. 943 77 04 21.

• San Andres inguruan montura marroia eta aumento handiko betaurrekoak galdu nituen, orain dela 15 bat egun. Tel.: 943 79 45 16.


32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Gazte talde bat lokala alokatzeko prest. Interesatuak jarri iragarria eta telefono zenbakia Arrasate Pressen.



weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Santa Ageda eskean ibiltzea aspaldiko ohitura da. 1965 inguruan Aranguen baserrian atera zuten argazkia hau.

Urteroko ohiturari eutsiz, egun hartan lagun koadrila hau "mil rayasak", brusak, abarkak eta txapela jantzi eta hildako

lagunen aldeko meza entzun ondoren, baserri joan zen Santa Ageda eskean. Batutako dirua mojen ospitalerako eman zuten, betiko moduan.

Abeslariak ezkerretik hasita: Jabier Zubillaga, Santi Altuna eta Jabier Arana. Besoa otzaran duena Julian Llodio da eta bere ondokoa, Jabier

Zubizarreta.

Atzean zutik dagoen lehena, Andoni Axpe da, bere ondokoa Candido Artola eta hurrengoa, txakurrari eusten dagoena, Ismael Errasti. Apurtxo bat aurrerago, betaurreko beltzekin Patxi Bustos, altzotan neskatilatxo duena Eugenio Gallastegi eta neskabila

bera, Rita Pagoaga. Eugenio-ren ondokoa Jose Maria Agirreurreta da eta soinujolea, berriz, Julian.

Koadrila honetako batzuek abesten segitzen dute.

Argazkia eta berriemailea:

Teresa Etxeberria



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



*Lorerik
ederrena
zure maitearentzat*

Marivi loradenda

Alfonso X. Jakintsua, 5
Grupo San Juan-en
Tel.: 943 79 15 59 / 943 79 81 54

Lirain estetika zentrua

Bixente Ferrer, 1
Tel.: 943 79 52 17



Adinaren aurkako
gama azal berriztatzailea



*Urre zurizko
distiraz maitatzeko*

Naroki bitxitegia

Erdiko kale, 23
Tel.: 943 79 20 47



5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe

Nissan Primera berriaren zenbait desberdintasun lehen egunetik gozatzen da: Bere diseinu sendo eta kirol itxurakoa. Erosotasuna, dotorezia, eta barruko isiltasuna. Temperatura perfektua, klimatizagailuari esker. Bere Xenon optikei esker duen ikuspen bikaina. NBA (Nissan Brake Assist) galgatze-sistema, ahalegin txikiagoarekin galtze eraginkorragoa ziurtatzen duena. Multi-link suspentsio hobetua, egonkortasuna, kontrola eta arintasuna ematen diotenak. Alboetako eta aurreko airbagak, gorputz-enbor eta buruarentzat babesdunak. Cambio Hypertronic iraultzailea, CVT automatikoaren eta sei abiadurako eskuzko sekuentzialaren artean aukeratzeko modua eskaintzen duena. Motorraren gestio elektronikoa, biraketa-gama guztietan erregaiaren kontsumoa eta etekina hobetzeko. 1.6 (100 CV), 1.8 (114 CV), 2.0 (140 CV) eta turbodiesel (90 CV) bertsioetan. 4 eta 5 ateko eta SportWagon karrozeriak. Beste desberdintasun batzuk, berriz, urte batzuk geroago gozatuko dituzu. Garantia adibidez: 5 urte, kilometro-mugarik gabe. Hala ere, horrelako garantia eskaintzen badizugu, bistakoa da zergatia: seguruenik ez duzu sekula behar izango.

Bertsioen araberako ekipamendua.

Nissan Primera Berria. Bete-beteen autoa.

*Salneurri gomendatua (BEZ, Matrikulazio zerga, Garraioa, Nissan Assitance, banatzailearen eskaintzadun promozio kanpaina, eta 5 urteko Garantia kilometro-mugarik gabe). Penintsula eta Belear uhartetako baliagarria, stockean dauden ibilgailuentzat. Prever plana ez dago barne.

PRIMERA	Pta.tik
1.6 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.339.000
1.8 COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.639.000
2.0 SPORT 5P (climat/Xenon argiak/ABS/NBA)	3.239.000
2.0 TD COMFORT 4/5 P (ABS/NBA)	2.579.000
2.0 TD COMFORT Sport Wagon (ABS/NBA)	2.729.000

5 urteko garantia kilometro-mugarik gabe.



Klimatizagailu be...



GIDATU ETA GO

ALDIBI AUTOAK, S.A.

NISSAN BANATZAILE OFIZIALA

Zigarrola kalea, 1 • Tel.: 943 71 20 02 • 20500 ARRASATE